



ARAIZKO UDALA
Kale Nagusia, 4
31891 Arribe-Atallu
(Nafarroa)
IFZ.: P3102000A

2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Araizko Udalbatzak akordio hau onartu zuen:

5. GESERLOCAL SL ERAKUNDE INSTRUMENTAL DEKLARATZEKO AKORDIOA

Geserlocal S.L. NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarako udalek sortutako merkataritza-sozietatea da, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-bilketaren alorrean zerbitzua emateko. Egun, Geserlocalek bere helburu sozialaren barruan dauden bestelako zerbitzu osagarriak ematen dizkie toki entitate horiei.

NUKFk Sozietatearen kapitalaren %97 du eta gainontzekoa aipatu udalei dagokie.

Orain arte, Geserlocalek beste zerbitzu batzuk eman dizkie Nafarroako toki entitateei kontratazio araudiaren arabera esleitze akordioen bidez.

Kontuan hartuta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleitzaleei eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea, Sozietate honi erakunde instrumentalaren izaera esleitzea posible da ez soilik haren kapitalean parte-hartzea duten udaletan baizik eta NUKFren kide diren toki entitateetan ere, Federazioa sozietatearen titular nagusia delako. Horrenbestez, erakunde instrumentala izateko baldintzak bete egiten dira:

- 1.- Sozietatearen kapital guztia publikoa da.
- 2.- NUKFk eta horri atxikitako toki entitateek, federazioaren bitartez, batera egiten dute Sozietatearen gaineko kontrola.
- 3.- Geserlocalek bere jardueraren funtsezko zati bat bitarteko propio gisa esleitu duten toki entitateentzat egiten du.

Hala jakinarazi du Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak 1/2021 txostenean. Aurrekoa kontuan harturik, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14an egindako saioan erabaki zuen Geserlocal Federazioari atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea hala erabakitzen duten toki entitateetan.

Horrenbestez, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki,

ERABAKI DA:

1. Geserlocal S.L. Araizko Udala toki entitatearen erakunde instrumental deklaratzeko aipaturiko Foru Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.
2. Adieraztea enkarguek nahitaezko diru-bilketari, isunen kudeaketari, kontabilitateari eta sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuei dagozkien prestazioak har ditzaketela barnean.
3. Honako erabakia NUKFri eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.



ARAIZKO UDALA
Kale Nagusia, 4
31891 Arribe-Atallu
(Nafarroa)
IFZ.: P3102000A

Akordia batzarrera etorritako guztiek aho batez onartu dute.

Jakinarazten dizut jakin dezazun eta ondorioak izan ditzan, eta ohartarazten dizut erabaki honen kontra errekurtso hauetako bat jar daitekeela: a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazten denetik; b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Epaitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina; edo, c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Epaitegiari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta hilabeteko epean.

Araitzen, 2024ko urriaren 22an

Alkatea,

Idazkaria,

Jose Manuel Zubillaga Muguerza

Joanes Aleman Ollo